



GIZARTE LAGUNTZAKO 24 ORDUKO KRISI ZENTRORAKO
LOKAL BAT EROSTEKO KONTRATURAKO BALDINTZEN
KARATULA

1.- KONTRATAZIOAREN XEDEA:

Karatula honen xedea da Gasteizen lokal bat erosteko prozedura baldintzak arautzea, jarraian adierazten diren baldintzei jarraituz.

Kontratua Sexu Indarkeriaren Biktimentzako 24 orduko Arreta Integraleko Zentroa azpiproiektuaren barruan sartzen da. Zentro hori Next Generation EU funtsek finantzatzen dute Berreskuratzeko, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan, 22. osagaiaren barruan (“zaintzaren ekonomiarako talka plana eta berdintasun eta inklusio politiken indartzea”) eta C22.I4 neurriaren barruan (Indarkeria Matxistaren kontra Babesteko Espainiako Plana). Azpiproiektuak Kontseiluaren Betearazpen Erabakian (Council Implementing Decision-CID) eta 22. osagairako eta C22.I4 neurrirako xedapen operatiboetan (Operational Arrangements-OA) oinarrituta esleitutako mugarriak eta helburuak lortu beharko ditu.

2.- KONTRATAZIO ORGANOA:

Gizarte Politiketako Saila

3.- ESPEDIENTE ZENBAKIA:

Esp. 2021/243

4.- ESLEITZEKO PROZEDURA:

Esleipena prozedura irekiaren bidez egingo da.

Espedientea ohiko moduan izapidetuko da.

5.- LIZITAZIO OINARRIA:

Lizitazioaren oinarritzko tasa 550.000,00 eurokoa izango da, BEZa barne, hala badagokio, eta zenbateko horrek eskaintzen gehieneko muga izango du.



6.- BERMEAK:

BEHIN-BEHINEKOA. Lizitazioan parte hartzeko, interesdunek 1.000,00 euroko fidantza jarri beharko dute.

Fidantza honako modu hauetakoren batean eratu ahal izango da, eta ondoren adierazten diren agirien bidez egiaztatuko da:

- Dirutan; kasu horretan, Arabako Foru Aldundiak hainbat erakundetan irekita dituen kontu korranteetako edozeinetan sartu izanaren frogagiria aurkeztu beharko da.
- Banku abalaren bidez, Foru Aldundiko Finantza Kudeaketako Zerbitzuan sartu izanaren egiaztagiria bidez egiaztatuko dena.
- Kauzio aseguru kontratu baten bidez ere eratu daiteke. Kontratua kauzioaren arloan lan egiteko baimena daukan aseguru entitate batekin egin behar da.

Bermea kontratuaren formalizazioari lotuta geratuko da, eta behin formalizatzen denean itzuliko zaie lizitatzailerei. Proposamen bat arrazoirik gabe kenduz gero, fidantza konfiskatu egingo da. Nolanahi ere, beste zigor batzuk ere aplikatu ahal izango dira, baldintza agiriko 18. atalean ezarritakoaren arabera.

BEHIN BETIKOA. Ez da behin betiko bermerik eskatzen.

7.- BALDINTZEN AGIRIA:

Interesdunen eskura dago helbide honetan:

- Arabako Foru Aldundiaren Ogasuneko Erregistroa eta Informazioa (Samaniego 14, beheko solairua, Vitoria-Gasteiz)
- Ondare Zerbitzua (Samaniego, 14-4. solairua, 01008 Gasteiz).
- Arabako Foru Aldundiaren web orrian (www.araba.eus)

8.- KONTRATUARI BURUZKO DOKUMENTAZIOA ETA INFORMAZIOA:

Hiru aukera daude eskatzeko edota aztertzeko:

- Ondare Zerbitzua (Samaniego, 14-4. solairua, 01008 Gasteiz). Karatula eta Baldintzen Agiriak eta aurkezteko prozedurarekin zerikusia duena: patrimonio.finanzas@araba.eus
- Arabako Foru Aldundiaren web orrian (www.araba.eus)

Era berean, telefono bidezko kontsultak egin ahal izango dira 945 18 18 18 telefonoan (54124 luzapena).

Eskatzen diren argibideen erantzunak ez dira inola ere lotesleak izango Arabako Foru Aldundiarentzat.



9.- AURKEZTEKO EPEA:

Proposamenak 30 egun naturaleko epean aurkeztuko dira, iragarkia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, eta epea amaitzen den eguneko hamalau orduak eta hogeita hamar minutuak izan arte, salbu eta jaieguna bada; kasu horretan, hurrengo egun balioudunera arte aldatuko da.

10.- PROPOSAMENAK AURKEZTEKO LEKUA:

Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorra (Probintzia plaza, 5 - behea, Gasteiz). Proposamenak postaz ere bidali ahal izango dira, administrazio publikoen kontratuen araudian ezarritako baldintzetan.

11.- AURKEZTEKO MODUA:

Gutun azal bakarra aurkeztuko da, "24 orduko krisi zentrorako lokala erostea" idatzita duena, eta eskaintza aurkeztean duen pertsonak sinatu beharko du, ordezkatzeko duen enpresaren izenarekin edo sozietate izenarekin.

Gutun azalak, aldi berean, prozeduran parte hartzeko eskabide orri bat eta bi gutun azal itxi izango ditu, A gutun azala eta B gutun azala, eta kontratazioa arautzen duten agiritako 8. atalean adierazitako edukia izango du.

Proposamenak postaz aurkezteko, zehatz-mehatz bete beharko dira Herri Administrazioen Kontratuen Erregelamenduko 80. artikuluan jasotako aginduak, eta horiek bete ezean ez dira onartuko.

12. KONTRATAZIO MAHAIA:

Kontratazio Mahaiaren osaera honako hau izango da:

- Finantza eta Aurrekontuen zuzendaria; lehendakari gisa jardungo du.
- Ondare Zerbitzuko burua
- Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Kontratazio eta Araubide Juridikoaren Arloko zuzendariorde teknikoa.
- Arkitektura Zerbitzuko burua.
- Esku hartze Zerbitzuko burua.
- Ondare Zerbitzuko teknikari letradua, idazkari lanak egingo dituena.

Aurreko guztiek beste pertsona bat eskuordetu dezakete.

13.- PROPOSAMENAK IREKITZEA:

Bi ekitaldi publikotan egingo da, bat gutun azal bakoitzeko, baldintzen pleguko 8. atalean adierazitako data eta baldintzetan.



14. ESLEIPENA:

Gutun azalak ireki ondoren, eskaintzak aztertu eta esleipen txostena idatziko da. Kontratazio mahaiaren akta, esleipen txostenarekin batera, lizitatuak guztiei jakinaraziko zaie.

Eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatuak hama eguneko epea emango zaio baldintza agiritan gaitasunari eta kaudimenari buruz xedatutakoa betetzen duela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkezteko.

Kontratua esleitzea edo, hala badagokio, esleitu gabe uztea Gobernu Kontseiluak erabakiko du, Ogasun, Finantza eta Aurrekontuetako eta Gizarte Politiketako foru diputatuak batera proposatuta.

Esleipena berrogei egun balioduneko epean egin beharko da, gutun azalak ireki eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

15.- PREZIOA ORDAINTZEA:

Prezioaren ordainketa kasuan kasuko eskritura publikoak izenpetzeko egintzan egingo da.

16.- ZERGAK, NOTARIO GASTUAK ETA ERREGISTRO GASTUAK:

Alderdiek indarreko arautegian ezartzen denaren arabera ordaindu beharko dituzte zergak.

Zergak indarrean dagoen araudiaren arabera ordainduko dituzte alderdiek.

17.- ESKRITURA PUBLIKOAK SINATZEA:

Eskritura publikoak sinatuko dira alderdi esleitzaitelen eta esleipendunen artean, kontratazio hau esleitu eta hilabeteko epean.

Gasteiz, 2022ko apirila